

## NAFARROAKO LEKU IZENEN EUSKARAZKO FORMEZ

*Alfonso Irigoien*

Euskaltzaindiaren batzarre otsailaren 26-an Donostian egin zen hartan, Nafarroako leku izenen euskarazko formez batzordeak, hain zuzen ere tokian tokiko jendez bereziki eta jakinaren gainean ugariturikoak, prestatuak zuen lehenengo zerrenda ontzat hartzeko urratsak ematen hasi orduko Pello Salabaru-ren izkribu bat partitu zen euskaltzainen artean “Leku izenen formak Baztanen” tituluaz.

1. Baztanen oso ongi bereizten omen dira, “beste leku anitzetan ez bezala, frikariak eta afrikatuak euskara mintzatuan” eta “erdararen eragina zalantzagarri iruditzen” zaio, “hangoek oso ongi bereizten” baitituzte “*Errazu* (erdaraz) era *Erratzu* (euskaraz), biak nahasi gabe”. Gauza bera *Burguete* eta *Auritz*, eta abar, baina “hala ere *Lekaroz*, *Arraioz*, *Almandoz* eta *Bertiz* dira euskaraz”, erdaraz bezalatsu. Jakina, “lesakarrek *Bertiz*” erabiltzen omen dute, ordea, “agian” “Lesaka aldean, eta oro har beste tokietan Baztandik kanpo, afrikatuen sistema bakarrik” dutelako “afrikatuarekin egin beharko dute nahi ta ez”. “Gerta liteke, —dio—, guk —baztandarrak—, gaizki ahozkatzea edo haiek izatea hain zuzen ematen ez dutenak”. Eta bestalde Baztanen “erdararen eragina nekez ikusiko den toponimian (mendiska eta lekutxoan euskal toponimian alegia), bietarik agertzen dela argi eta garbi”. *Petaláts*, *Auritz*, *Berdáitz*, *Maulítz*, baina *Naás*, *Erratxúríz*, *Otsanaíz*, *Ezkíz*, *Azkanáz*, *Erdíz*.

2. Gero ematen duen listan *Oharriz* formaren parean euskaldunen artekotzat bi jartzen ditu: *Umerritz* eta *Umerriz*. Hor, ordea, bazilazioa eta zalantza nabarmena da, Elizondoko beste lekuko batek ere, Mariano Izeta-k, duen berbera, zeren behin eta berriz *Umérritz*, jakinaren gainean ondo markaturik eta bertakoen ahoan ipinirik, esan bazidan ere, geroago bigarren aldiz gauza bera tratatu zuenean *Umérriz* esaten zuten bere joera orokorraren arauera, baina, egia esateko, haren benetako ohitura *Oárriz* esatearena da, izen ofizialak duen presio indar izugarriaren eraginez, eta hark, bere emaztea *lekautzárrà* izanik, *Lekáuzèn* esaten badu ere, beste batzu *Lekáuzèn* ebakitzen dutela aitortzen du. Horrela grabatu zuen zinta magnetofonikoan, behin eta berriz errepikatzen duela desberdintasun hori. Hau Baztango lekuren baten hala den ala susmo bat besterik ez

den baieztatu beharko litzateke eta hala balitz lekukotasun egokiak bilatu zehazki. Gainera, hark, *Errázù* erabiltzen du eta entzun ere hala entzuten omen du normalki bere inguruan, baina badaki beste batzu *Errátzù* ere esaten dutela, —lehen ikusi dugun bezala Salaburu-ren familiakoek ere bai—. *Errázù* euskaraz esatea, aspaldidanik, ez betidanik, erdarak duen ebakitzeko moduaren eraginez ez baldin bada, nahiz eta gurasoetarik ikasi, orduan zer da? Gipuzkoan ere toponimo berbera agertzen da txistukari afrikatua duela: “*Erratzu-txakolingoa, -erdikoa y -goikoa, case-rios de Urretxua (Villarreal, Gip.)*”, Eleizalde, *RIEV*, XIX (1928), 77 orr., (1).

Mariano Izeta-k *Almádozèn, Anízèn, Arráiozèn, Oronózèn / Oronóztik / Oronóztárrák*, —erdarazko azentuaren pareko azkenengo hau, gentilizioan izan ezik—, *Bertízèn*, ematen ditu. Ofizialki erdaraz *Tipulaz* den formaren berri zuzenik ez zuen, 1575 urtean *Tipulaçe* forman dokumentatua Jose M.<sup>a</sup> Jimeno Jurio-k normalizazioa egiteko beriziki bildu dituen artean, *AGN.: Pro. Santes.*, Car. 26, hau da: *tipulatze*, ‘cebollar’, euskaldunen artean beti txistukari afrikatu garbia duen hitza. Lekukoak bilatu beharko lirateke euskaraz mintzatzerakoan nola ahoskatzen duten jakiteko.

3. Lehenengo eta behin adierazi behar da *Almádotzèn, Bertízèn*, eta Baztandik kanpoko toponimoen artean *Madótzèn*, eta abar, esaten dutenak ere argi eta garbi bereizten dituztela frikariak eta afrikariak, eta ez bakarrik bat bederaren hizkera arruntean, baita zenbait toponimotan ere. Kontua da jakitea zergatik erabiltzen dituzten halakoetan afrikariak eta ez frikariak.

Alderantziz gertatzen da, eta Mariano Izeta dugu lekuko, Baztango ez diren toponimoak esaten dituztenean, zeren *Urrózèn*, —baina konturatu gabe *Urrótzaldeán* dio hizketaldian—, *Madózèn, Azpirozèn, Imózèn, Aráizèn, Aizározèn*, ateratzen baitzaizkie. Eta hor zer esan beharko lukete afrikaria erabiltzen duten baztandar ez direnek, baztandarrek ez dutela afrikari eta frikaririk bereizten? Argi dago ez dela horrela. Baina, beste alde batetik, beti *Aurtíz* ebakiarren eta gero *Aurtízèn*, uste du badirela *Aurtítzèn* diotenak ere, eta agian hori pentsatzen du hurrengo aipatuko dena gogoan duelako. Izan ere, euskaraz beti eta zalantzarik gabe *Aurtíz* ahoskatzen du erdaraz *Burguete* dena, eta jakina, hor, berezkoa denez, erdarak ez du inolako eraginik, eta hala dio Salaburu-k ere.

4. Erdi Aroko dokumentazio zaharrean badira argi eta garbi, ozitako tipoko grafien bidez alegia, azken posizioako afrikariarekin agertzen

(1) LUIS DE ELEIZALDE: “Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas”, *RIEV*, XIII (1922)-koan hasten da eta zatika ematen du aurrerantzean.

diren Baztango toponimo batzu, egungo egunean erdaraz *-oz* bukaera dutela izkribatzen direnak, Jose M.<sup>a</sup> Jimeno Jurio-k bildu dituenen artean:

*Almandotz* (1268, *FEL. MOR: Igl. nav.*, n. 995).

*Anitz* (1192, *FORTUN: Colec. fue.*, n. 33; 1268, *FEL. MORR: Igl. nav.*, n. 903).

5. Bizkaian ere halako zerbait gertatu zen euskarazko formak finkatzerakoan. Baina hangoa erraz erabaki zen, zeren *Lemoizen*, *Laukizen*, *Berrizen*, eta abar, egungo egunean mundu guztiak hala esaten duenez gero ohitura horretan oinarri harturik egoerari amore eman baitzitzaion, eta, beste alderdi batetik, ez baita ezagutzen halakoetan txistukari afrikariaren alde argi eta garbi eta anbiguetate gabe lekukotasunik emango lukeen dokumentazio zahar berezirik. Alderantzizko kasuren bat edo beste ere izan zen: esaterako *Gerrikaitz*, zeren askok eta askok toponimo horretan txistukaria frikari moduan emanarren inguruetan ez baita horrela, cfr. **Euskera**, XXI (1976), 308 orr., (2). Neurorrek Aulestin ordurako *Gérrikètz* bildurik nuen, eta hala argitara emanik, *FLV*, 11 (1972), 212-213 orr., (3).

Nafarroan, ordea, ugari dira hainbat kasutan afrikariaren ohitura zaharra gorde dutenak.

6. Batzutan, *Beraskoitz* tipokoak diren forma zaharretan alegia, ez bestelakoetan nahi ta nahi ez, afrikariaren azken iturria latinezko *-s* bat da, eta izan ere ondo gordetzen da *Brisous* erdarazko forma ofizialean, ikus joan den abenduan Euskaltzaindiko batzarrera aurkeztatu nuen "Leku izenen euskarazko formak Nafarroan" lana, baina euskaldunen artean azken posizioan zegoenean afrikariaren alde, *-tz* eginik, neutralizatzeko joera zuen, haren ordaina *-z* baitzen, ikus lat. *corpus* > eusk. \**gorpuz* > *gorputz*, cfr. Michelena, *FHV*, 2.<sup>o</sup> ed., 14.6, 287 orr. eta hurr., (4).

*Bidankòzè* eta halakoetan, ordea, *-e* bat agertzen da azken posizioan, Erdi Aroko dokumentuetan beretan jadanik ondo biltzen dena, Aragoi aldean egungo egunean galdurik badago ere, cfr. *Arascués*, Huesca-n, Erdi Aroan in *Arascuasse* (1097, *Pedro I*, dok. 31), (5), eta diptongazio gabeko formaz izkribaturik *uilla que dicitur Arasquosse* (1136, *Leire*, f. 248), (6).

(2) Euskaltzaindiaren agiriak: "Herri eta herritarren izendegia", J. L. Lizundia eta Hendrike Knörr-en hitzaurrea, **Euskera**, XXI (1976), 287-315 orr.

(3) ALFONSO IRIGOYEN: "Formas de nombres de localidades vizcainas", *FLV*, 11 (1972), 207-218 orr.

(4) LUIS MICHELENA: *Fonética Histórica Vasca*, 2.<sup>a</sup> ed., San Sebastián 1977.

(5) ANTONIO UBIETO ARTETA: *Colección diplomática de Pedro I de Aragón y de Navarra*, Zaragoza 1951.

(6) RICARDO CIÉRVIDE: "Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire (II)", *FLV*, 25 (1977), 117-152 orr.

Honek ez du esan nahi bereziki formazio berriagokoetan frikariak ezin ager daitezkeenik, hala nola *Naás*, atzean *maas* ez duela, edo beste zerbait, edo garai baten *Gazte naiz* tituluaren azpian *Zeruko Argia*-n ateratzen zena, esaterako.

7. Eginik dagoen partea gogora ekartzen dugularik esan dezakegu, konparazio baterako, batzordearen aurreko izkribuan *Bertiz* bazegoen ere, eta beste alde batetik *Bertizarana* zegoen orain urte batzutakoan, cfr. *Euskal Herriko udalen izendegia*, (7), Jose M.<sup>a</sup> Azpiroz apez jaunaren proposamenez *Bertitz* formara aldatu zen, eta inork ez zuen eragozpenik ipini bildurik zeudenen artean, hala esaten baitu hiztun askok, eta ez horrela euskaldunago dela uste dutelako, Mitxelena-ren hitzetan Salaburu-k dioen bezala, —ez dakigu zein kontesturi dagokiola, ahozko transmisiokoa baita, dirudienez—, tradizioaren poderioz eta aurreko eritzirik batere gabe hala esaten dutelako baizik.

Gero batzordean parte hartu zuten guztiak ez ziren Euskaltzaindiaren batzarrean izan eta ezta euskaltzain guztiak ere, elurra zela kausa.

Edozein modutan ere euskarazko formak finkatzerakoan memorio kulturala gogoan izatekoa da eta hori benetan hartzen baldin badugu, hartu behar den moduan, zeharo zuzena eta normala iruditzen zait neurri baten barruan eta gauza argia denean joera zaharrak hobestera jotzea.

Bilbao 1988-III-12

---

(7) EUSKALTZAINDIA: *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbo 1979.